



Gipuzkoako  
Herritarren Batzarra.  
**Landa-eremua  
eta Klima.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN  
KONTU-EMATEA: ALDUNDIAK HARTUTAKO  
KONPROMISOEN BETETZE-MAILA.

2024ko ekaina, hirugarren itzultze-saioa.



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa

# Zer da Gipuzkoako Herritarren Batzarra?

Herritarren Batzarra parez pareko erronka konplexuei elkarlanetik erantzuteko taldea da, politika publikoen garapenean herritarrak inplikatzeko, konfiantzazko harremanak eratzeko eta lankidetzazko gobernantza praktikan jartzeko taldea, alegia. Demokrazia deliberatiboan sakontzeko prozesu berritzailea da, eta herritarra politika publiko batzuetan modu esanguratsuan inplikatzeari bultzada ematen dio, Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako erronkari lotutako erabaki publikoetan herritarren ahotsa aintzat hartuz.

Ia urtebeteko diseinu lana eta gero, ausaz edo zozketa zibiko bidez aukeratuak izan ziren Gipuzkoako 32 herritar, lurraldeko aniztasuna bermatzeko helburuz irizpideak hartuta (adina, generoa, hezkuntza-maila, hizkuntza ezagutza, bizitokia eta tokiko produktuei ematen zieten garrantzia). Gipuzkoako Herritarren Batzarra 2022ko azarotik eta 2023ko urtarrilera bitartean aritu da lanean.



# Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako abiapuntuko gaia eta galdera

Gipuzkoako gizarteak, munduko beste gizarte askok bezala, dilema bati egin behar dio aurre gaur egun. Alde batetik, landa-eremuko lehen sektorean (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzaren kudeaketaz ari gara nagusiki hemen) bizi eta lan egiten duten pertsonen zailtasun handiak dituzte ingurune horretan bizirauteko. Eta bestetik, landa-eremua bereziki kaltebera da eta nekazaritza-sektoreak berebiziko aukerak eta erantzukizunak ditu klima-larrialdiaren aurkako borrokan eta egokitzean.

## *Nola bermatu dezakegu Gipuzkoako nekazar-jarduera klima-larrialdari aurre egiteko?*

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arantzazulab-ek eta Telesforo Monzon Herrigintza laborategiak sustatu dute, Deliberativa aholkularitzaren bidelaguntzarekin eta ELGA/OCDE erakundeak zehaztutako praktika onen printzipioak oinarri hartuta. Ia urtebeteko diseinu lana eta gero, 2022ko azaroan abiatu zen Herritarren Batzarra.



# 32 batzarkide eta 40 orduko deliberazio-prozesua

Aukeratutako 32 herritarrek 40 orduko deliberazio-prozesuan parte hartu zuten 2022ko azaroa eta 2023ko urtarrila bitartean. Lau asteburutan elkartu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritako erronkari buruz informazioa jasotzeko, horri buruz deliberatzeko eta proposatutako galderari gomendioak egiteko. Prozesua Deliberativa-k diseinatu, eta Artaziak eta Aztiker taldeek erraztu zuten.

Batzarkideek hasierako galderari erantzuteko 9 gomendio adostu zituzten. Gomendioek, halaber, adostasun eta babes maila handia jaso zuten, batzarkideen %80 baino gehiagok babestu baitzituzten.

Gomendio horiek 2023ko urtarrilaren 14an aurkeztu zizkieten Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariari idatziz.



# Herritarren Batzarrak egindako gomendioei erantzuna

Foru erakundeak 2023ko martxoaren 15ean egindako lehen itzultze-saio publikoan, Herritarren Batzarrak egindako gomendioei erantzun zien idatziz. Gomendio bakoitzari buruz zer egingo den, zein aurrekontu esleituko zaion eta zein epeetan gauzatuko den erantzun zuten. Aldundiak jaso zituen bederatzi gomendioak onartu zituen, aldaketa txikiekin.



# Aldundiak hartutako Konpromisoak

	Gomendioaren titulua	Proposamena betetzeko konpromiso-maila	Inplikaturako departamentua	Aurrekontua(k)	Epeak
1	Landa eremuko jabeen konpentsazio ekonomiko bat itzuli zerbitzu ekosistemikoetan dituzten ekarpen kopuruaren arabera eta gizarteari balio hauek zabaldu.	●	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea	150.000 € + 1,5 milioi €	2023- 2027
2	Baso gestioa sustatu I+G bitartez eta sektore estrategikoa bihurtuz.	●	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea	100.000 € + Departamentuko ohiko Aurrekontuetatik	2024- 2027
3	Lehen sektorea estrategiko bihurtzea, balorazio ekonomikotik ekosistemikora igaroz, tartean diren eragileen parte-hartzearen bidez.	●	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea	30.000 € + 2 milioi €	2023- 2027
4	Gizartea haurtzarotik kontzientziatzea/sentsibilizatzea, nekazaritzaren eta klima aldaketaren munduari dagokionez.	●	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea	4.000 € + 100.000€ + 20.000 €	2023- 2024
5	Lehen sektorea gaztetzeko neurriak aztertzea.	●	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea	30.000 € + Aurrekontu arrunten kontura	2023- 2027
6	KM.0 sustatzea 1. ekoizpen-fasetik.	●	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea	30.000 € + 100.000 € urtean	2023 -2025
7	Nekazaritza ekologiko estrategikoa sustatzea, lehiakortasuna, produktibitatea eta merkaturatzea handitzeko erakunde bat sortuz/zabalduz	●	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea	100.000 € + 450.000 €	Gauzatzen ari dira eta jarraipen-konpromisoa dago
8	Tokiko produktua sustatzea, hobari fiskalak egokituz.	●	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Ogasuna eta Finantzak	100.000 €	2024- 2025
9	Baserri misto profesionala sustatzea.	●	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea	1,8 milioi € urteroko deialdian.	2023- 2028

● Onartzen da (aldaketarik gabe)

● Aldaketa txikiekin onartzen da

● Ez da onartzen

# Kontu-ematea: Aldundiak hartutako konpromisoen betetze-maila 2024an

2023ko martxoan egindako itzultze-saio horren ostean, Gipuzkoako Foru Aldundia hartutako konpromisoak gauzatzen ari da. Dokumentu honetan Aldundiak 2024 urtean egindakoa deskribatzeko informazioa jasotzen da. Zehazki, ondorengoak deskribatzen dira: 2024 urtean gomendioaren betetze-mailaren egoera; gomendioan inplikaturako sailak eta ekintza horiek bideratzeko epeak.



# Kuadro orokorra: Aldundiak hartutako konpromisoen betetze-maila 2023 eta 2024an

	Gomendioaren titulua	Betetze-maila 2023	2024	Epeak	
1	Landa eremuko jabeen konpentsazio ekonomiko bat itzuli zerbitzu ekosistemikoetan dituzten ekarpen kopuruaren arabera eta gizarteari balio hauek zabaldu.	1.1	●	●	2023- 2026
		1.2	○	●	2026
		1.3	●	●	2023- 2027
2	Baso gestioa sustatu I+G bitartez eta sektore estrategikoa bihurtuz.	2.1	●	●	2024- 2025
		2.2	●	●	2023- 2027
		2.3	●	●	2023- 2027
		2.4	●	●	2024- 2027
3	Lehen sektorea estrategikoki bihurtzea, balorazio ekonomikotik ekosistemikora igaroz, tartean diren eragileen parte-hartzearen bidez.	3.1	●	●	2023- 2027
		3.2	●	●	2024
		3.3	●	●	2023- 2027
		3.4	●	●	2024
		3.5	●	●	2026
4	Gizartearen haurtzarotik kontzientziazatzea/sentsibilizatzea, nekazaritzaren eta klima aldaketaren munduari dagokionez.	4.1	●	●	2023-2024
		4.2	●	●	2023
		4.3	●	●	2023
		4.4	●	●	2023-2024
		4.5	●	●	2023
		4.6	●	●	2023
		4.7	●	●	2023-2024
		4.8	●	●	2023-2024
		4.9	●	●	2023-2024
		4.10	●	●	2023-2024



Gomendioaren titulua		Betetze-maila		Epeak	
		2023	2024		
5	Lehen sektorea gaztetzeko neurriak aztertzea.	5.1	●	●	2023- 2027
		5.2	●	●	2023
		5.3	●	●	2023
		5.4	●	●	2023- 2024
		5.5	●	●	4. gomendioan jasotakoa
		5.6	●	●	Azterketa-datak 6-7 hilabete
		5.7	●	●	2023
6	KM.0 sustatzea 1. ekoizpen-fasetik.	6.1.	●	●	2023 -2025
		6.2.	●	●	
		6.3.	●	●	
		6.4.	●	●	
		6.5.	●	●	
7	Nekazaritza ekologiko estrategikoa sustatzea, lehiakortasuna, produktibitatea eta merkaturatzea handitzeko erakunde bat sortuz/zabalduz	7.1	●	●	Gauzatzen ari dira eta jarraipen-konpromisoa dago
		7.2	●	●	
8	Tokiko produktua sustatzea, hobari fiskalak egokituz.	8.1	○	●	2024- 2025
		8.2	○	●	2024- 2025
		8.3	○	●	2024- 2025
9	Baserri misto profesionala sustatzea.	9.1	●	●	Programaren diseinua 2023an Implementazioa 2024-2025-2026-2027-2028 urteetan

· Kuadro honetan 2023ko azaro eta 2024ko ekaina bitarteko egoera jasotzen da.

· Kuadro honetan azaltzen diren zenbait gomendioren betetze-maila 2024tik aurrerako epea zehazten dute. Hau horrela den kasuetan eta berdez agertzen badira, esan nahi du epe luzeagoko konpromisoa izan arren eta egin beharreko urrats guztiak bukatua ez dauden arren, 2024an egin beharreko urratsak beteak direla.

- 2023ko konpromisoa bete da
- 2023ko konpromisoa hasi da
- 2023an konpromisoa ez da bete
- 2023 urterako ez zen konpromisorik hartu eta beraz, 2023an ez da hasi

# 1. Landa eremuko jabeei konpentsazio ekonomiko bat itzuli zerbitzu ekosistemikoetan dituzten ekarpen kopuruaren arabera eta gizarteari balio hauek zabaldu.

---

## ▼ ALDUNDIAREN IKUSPEGIA GOMENDIO HONEKIKO

---

Zerbitzu ekosistemikoen kontzeptuak indarra hartu du azken urteotan, eta Aldundiak ondo ikusten du gai horri buruzko azterketa bat egitea, herrialde aurreratuenen esperientziak ezagututa. Era berean, beharrezkotzat jotzen da gizartea arlo

horretan gehiago sentsibilizatzea, eta, beraz, gizarte osoa inplikatzeko zerbitzu ekosistemikoak sortzen dituzten eragileei laguntzeko neurriak ezartzen.

---

## ▼ ZER EGITERA ETA ZER EZ EGITERA KONPROMETITZEN DA ALDUNDIA?

---

**1.1.** Landa Ingurunearen Arloko zuzendaritzek konpromisoa hartzen dute aztertzeke zer urrats egiten ari diren herrialde aurreratuetan Zerbitzu Ekosistemikoen inguruan azterketa bat egiteko eta hurrengo bi urteetan aplikatzeko proposamen bat egiteko. Lan hori unibertsitate munduarekin eta ikerketa zentroekin batera egingo litzateke. Lan horren emaitza Gipuzkoan sortzen diren zerbitzu ekosistemikoak zenbatuz egingo litzateke. Lan honetarako 150.000 euroko aurrekontua kalkulatu da.

**1.2.** Era berean, Landa Ingurunearen Arloko Zuzendaritzek lankidetzaren dinamika bati ekingo diote Ogasun eta Finantza departamentuarekin, zerbitzu ekosistemikoei dagokienez

hobari fiskalak (edo kenkari fiskalak) sortzeko aukera aztertzeke eta, bideragarria balitz, 2026. urtean abian jarri ahal izateko. Hobari fiskalak ezartzeak ahalegin gehigarria ekarriko lioke Aldundiari, eta, kasu honetan, Errenta Aitorpenean eta Sozietateen gaineko Zergan kenketa eginez kobratzeari utziko lioke. Lehenengo zenbatespena 1,5 milioi eurokoa izango litzateke.

**1.3.** Zerbitzu ekosistemikoen sentsibilizazioa eta gizarte inplikazioa areagotzeko, gaia Aldundiaren Komunikazio Planean sartuko da, OREKA BERDEA izeneko errelatoekin eta komunikazio ekintzekin lotuz.

---

## ▼ EPEA: NOIZ GARATZEA AURREIKUSTEN DA?

---

**1.1.** 2023an bertan hasiko litzateke azterketa, eta 2026an hobari fiskalak ezarriko lirateke, 2027an aplikatuko liratekeenak 2026ko errenta aitorpenean eta zerga sozietateetan.

**1.2.** 2026.

**1.3.** 2023-2027

---

## ▼ AURREKONTUA. NOIZ ETA ZENBAT?

---

**1.1.** 150.000 euro.

**1.2.** Kostua, guztira: 1,5 milioi euro.

**1.3.** Komunikazio ekintzak. Aldundiaren ohiko aurrekontuekin gauzatuko da.

# 1. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2023ko azaroa

---

## ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---

**1.1.** LGE (Landa Garapeneko Elkartek) eta Deustoko Unibertsitatearekin elkarlanean zerbitzu ekosistemikoen monetizazio azterketa egiten ari da. Horrez gain, Suitzako metodologia bat oinarri hartuz, esne ustialekuen CO2 aztarna neurtu eta gutxitzeko proiektu pilotu bat diseinatzen ari gera lau erakundeak, Kaiku baserritarren kooperatiba, kudeaketa zentroak, Neiker, Azti eta Hazi.

**1.3.** GFA egitera doan Plan Estrategikoan eta ondoren egin beharreko komunikazio planetan zerbitzu ekosistemikoen errelatoa barneratzea aurreikusita dago; dena den, orain ere edozein komunikazio ekintzatan (Gure Lurra aldizkaria, sare sozialak, elkarrizketak...) aipatzen da.

---

## ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

---

- 1.1.**  2023ko konpromisoa bete da
- 1.2.**  2023 urterako ez zen konpromisorik hartu eta beraz, 2023an ez da hasi
- 1.3.**  2023ko konpromisoa bete da

---

## ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

---

Lurralde Oreka Berdea, Ogasuna eta Finantzak, eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

---

## ▼ EPEA

---

**1.1.** 2023-2026

**1.3.** 2023-2027

**1.2.** 2026

# 1. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2024ko ekaina

---

## ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---

**1.1.** LGE eta Deustoko Unibertsitateak elkarlanean zerbitzu ekosistemikoen monetizazio azterketa egin dute, “Lurretik Mahaira”: Gipuzkoako familia nekazarita unitatetako elikagaien ekoizpenak eta hauek osasunean duten eragina. Gipuzkoako lehen sektoreko zerbitzu ekosistemikoen azterketa.

**1.2.** Batzar Nagusietan Erreforma Fiskalari buruz onartu den ponentzian Deustoko Unibertsitateak Zerbitzu ekosistemikoen inguruko gaia azaldu du.

Lurralde Oreak Berdea eta Ogasun eta Finantza Departamentuen arteko lankidetzak politiko-teknikoa martxan jarri da, Zerbitzu Ekosistemikoak fiskalitatean txertatzeko aukera ezberdinak aztertu eta 2026an abian jartzeko helburuarekin.

**1.3.** GFAK onartu duen 2024-2027 Plan Estrategikoan Zerbitzu ekosistemikoen kontzeptua barneratu da lehen aldiz.

Lehenengo sektoreko manifestazio eta aldarrikapenei erantzun asmoz lau administrazioek (Hiru Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritza)

“EUSKAL ADMINISTRAZIOEK LEHEN SEKTOREAREKIN HARTUTAKO KONPROMISOAREN DEKALOGOA” izeneko konpromisoen zerrendatze bat egin zen. Bertako 5. konpromisoan “INGURUMEN POLITIKAK NEKAZARITZAKO JARDUERAREKIN SENTSIBILIZATZEA” atalean, ekimen hau jasotzen da: “Zerbitzu ekosistemikoak. Erreforma fiskalari begira, zerbitzu ekosistemikoak sortzen dituzten nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-jardueretan onura edo kenkari fiskalak jasotzeko aukera aztertzea.”/Ondoren egin beharreko komunikazio planetan zerbitzu ekosistemikoen errelatoa barneratzea aurrikusita dago, dena den, orain ere edozein komunikazio ekintzatan (Gure Lurra aldizkaria, sare sozialak, elkarrizketak...) beti aipatzen da.

---

## ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

---

**1.1.** ● 2024ko konpromisoa bete da

**1.2.** ● 2024ko konpromisoa bete da

**1.3.** ● 2024ko konpromisoa bete da

---

## ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

---

Lurralde Oreak Berdea, Ogasuna eta Finantzak, eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

---

## ▼ EPEA

---

**1.1.** 2023-2026

**1.3.** 2023-2027

**1.2.** 2026



## 2. Baso kudeaketa sustatu I+G bitartez eta sektore estrategikoa bihurtuz.

### ▼ ALDUNDIAREN IKUSPEGIA GOMENDIO HONEKIKO

Aldundia ados dago gomendio honetan basoari ematen zaion izaera estrategikoarekin. Basoak ezinbesteko tresna dira klima aldaketari aurre egiteko, ekonomia zirkularren, aisialdi lekuaren eta abarren sortzaileak dira, hau da, ekonomia,

gizarte eta ingurumen funtzioak betetzen dituzte, eta, beraz, estrategikoak dira. Eta estrategikoak direnez, horiek mantentzeko eta indartzeko ekimenak behar dira.

### ▼ ZER EGITERA ETA ZER EZ EGITERA KONPROMETTIZEN DA ALDUNDIA?

**2.1.** Euskal Autonomia Erkidegoan, NEIKER izeneko ikerketa zentro bat dago, eta, besteak beste, basogintza sektoreari heltzen dio. Aldundiak, NEIKER zentroarekin eta Mendi eta Baso Ingeniaritzako Unibertsitateekin batera, ikerketa aplikatuko plan bat diseinatzeko konpromisoa hartu du, horretarako beharrezkoak diren lursailak Aldundiaren esku jarri eta partikularren lursailak erabiltzeko hitzarmenak ezarri.

**2.2.** Sektore estrategiko izaera emateko ahaleginari dagokionez, Aldundiak konpromisoa hartzen du aitorten hori eremu sozial eta publiko administratiboetara helarazteko, adierazpen publiko baten bidez kasu bakoitzean azpimarratzeko eta onartzeko. Era berean, Mendiei buruzko Foru Araua berrikustea planteatzen da, izaera estrategiko hori indartuko lukeena erronka berriei aurre egiteko: zerbitzu ekosistemikoak integratzea, klima aldaketa saihesteko egiten duten ekarpena aitortzea eta basoak uztea saihesteko neurri zehatzak.

Basoari aitortutako zerbitzu ekosistemikoei dagozkien konpentsazio ekonomikoak aitortzeko, aztertzeko eta ordaintzeko konpromisoa. "1. Landa-inguruneke jabeek konpentsazio ekonomiko bat itzultzea, zerbitzu ekosistemikoei egiten dieten ekarpenaren arabera, eta balio horiek gizarteari zabaltzea" 1. gomendioan jasotzen da.

**2.3.** Baso jabeek begira, Departamentuak emaitzak partekatuko ditu, sektoreko ordezkariekin bilerak eta partaidetza dinamikak eginez. Eta gizarte osoari dagokionez, Departamentuaren komunikazio planen eta baliabideen bidez egingo da.

**2.4.** Zerbitzu ekosistemikoei sortzen dituzten onurak, jabeek ekonomikoko konpentsatzea da gomendio honen eskarrietako bat. Aldundiaren ikuspuntutik, Aldundiak sortutako BSTK fundazioa tresna egokia da helburu hori betetzeko. Fundazio honen helburua honako hauek kuantifikatzea da: basoak ekonomia zirkularrean duen balioa, basoak CO2 hustubide gisa duen eginkizuna eta biodibertsitatearen eta beste zerbitzu ekosistemiko batzuen balioa, eta gizarte osoaren zerbitzura jartzea.

### ▼ EPEA: NOIZ GARATZEA AURREIKUSTEN DA?

2024an hasiko litzateke. Plana diseinatzeko epea: bi urte

**2.1.** 2024-2025

**2.2.** 2023-2027

**2.3.** 2023-2027

**2.4.** 2024-2027

### ▼ AURREKONTUA. NOIZ ETA ZENBAT?

**2.1.** 100.000 euro.

**2.2.** Departamentuko ohiko aurrekontuetatik.

**2.3.** Departamentuko ohiko aurrekontuetatik.

**2.4.** BSTK fundazioaren aurrekontuaren bidez aurre egingo zaio.

## 2. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2023ko azaroa

---

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---

2.1. Esperimentazio hau egin daitekeen leku posible bat identifikatu da eta Mendi Zuzendaritzako teknikariek plan bat diseinatzeko aurreneko urratsak eman dira.

2.4. Global Factor izeneko kontsultora batekin hasi da gai hauen inguruko gerturatze bat egiten.

2.3. Baso jabeekin, sektoreko ordezkariekin eta gizarte osoarekin ekimen honen komunikazioa eta dinamizazioa nola egingo den aztertzen hasi da.

---

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

---

2.1.  2023ko konpromisoa bete da

2.3.  2023ko konpromisoa hasi da

2.2.  2023an konpromisoa ez da bete

2.4.  Beteta, nahiz eta 2024an hasteko konpromisoa izan

---

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

---

Lurralde Oreka Berdea eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

---

### ▼ EPEA

---

2.1. 2024-2025

2.3. 2023-2027

2.2. 2023-2027

2.4. 2024-2027

## 2. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2024ko ekaina

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

**2.1.** Esperimentazio hau egin daitekeen lekua identifikatu da. Arrasaten kokatzen den Zaburdi izeneko mendia da, Herri Onurako izendapena dauka (1.055.1) eta Aldundiaren jabetzakoa da. NEIKER eta HAZI Fundazioko baso atalekin ekimena partekatu da eta esperimentazio proiektua elkarrekin diseinatu eta inplementatzeko markoa ezarriko duen elkarlan hitzarmena idazteko lanean ari dira mendietako zuzendaritzako Neiker eta Haziko teknikariak.

**2.2.** GFAaren 2024-2027 Plan Estrategikoan Helburu Estrategiko bezela jaso da (4.2.a) "Basoen eta bere zerbitzu ekosistemikoen kudeaketa jasangarria garatzea eta natur inguruneak eta biodibertsitatea zaintzea". Helburuak, bere baitan, 6 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da: Beharrezkoa da basoen eta horien zerbitzu ekosistemikoen kudeaketa jasangarrian ere aurrera egitea. Horretarako, basoen jabegoa errespetatuz, bultzada publiko berri bat proposatzen da basoen jabe txikien jarduna errazteko eta, modu berean, lurraldeko basoen papera indartzeko bioekonomiaren alorrean duten garrantziaren ikuspegitik. Basoari aitortutako zerbitzu ekosistemikoei dagozkien konpentsazio ekonomikoak aitortzeko, aztertze eta ordaintzeko konpromisoa. "1. Landa-inguruneke jabeei

konpentsazio ekonomiko bat itzultzea, zerbitzu ekosistemikoei egiten dieten ekarpenaren arabera, eta balio horiek gizarteari zabaltzea" 1. gomendioan jasotzen da.

Elikadura jasangarriaren markoan Irlanda eta Esloveniarekin sortu den lan taldean Gipuzkoako ekimen bezela BMP eta BSTK eraman dira.

Guzti honetaz gain, Batzar Nagusietan Basogintzari buruzko ponentzia bat martxan jarriko da irailean. Ponentzia honen ondorioak garrantzitsuak izango dira Basogintza politika berdefinitu eta sendotzeko eta basoaren gizarteko funtzio berriak barneratzeko.

**2.3.** Baso jabeekin, sektoreko ordezkariekin eta gizarte osoarekin ekimen honen komunikazioa eta dinamizazioa nola egingo den aztertzen hasi da.

**2.4.** Global Factor izeneko kontsultora batekin lehen gerturaketa lan bat egin da eta momentu honetan lehen proposamen hau Gipuzkoako Basoen errealitatera ahalik eta gehien egokitzeko lanetan ari gara.

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

**2.1.** ● 2024ko konpromisoa bete da

**2.3.** ● 2023ko konpromisoa hasi da

**2.2.** ● 2024ko konpromisoa hasi da

**2.4.** ● 2024ko konpromisoa bete da

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

Lurralde Oreka Berdea eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

### ▼ EPEA

**2.1.** 2024-2025

**2.3.** 2023-2027

**2.2.** 2023-2027

**2.4.** 2024-2027





### 3. Lehen sektorea estrategiko bihurtzea, balorazio ekonomikotik ekosistemikora igaroz, tartean diren eragileen partehartzearen bidez.

#### ▼ ALDUNDIAREN IKUSPEGIA GOMENDIO HONEKIKO

Aldundiak uste du beharrezkoa dela lehen sektoreari izaera estrategikoa ematea eta egiten dituen ekarpen guztiak kontuan hartzea, lehen sektoreak egiten duen ekarpen ekonomikotik haratago (zerbitzu ekosistemikoak: ingurumen ekarpena, lurralde oreka, kultura ekarpena...).

Gure ustez, gomendio honetan jasotzen diren ekimenetako batzuk dagoeneko abian daude, eta hurrengo puntuetan zehaztuko ditugu. Hala ere, gomendio horren ekarpenek lagundu egiten digute azentua non jarri definitzen eta egiten ari dena aberasten.

#### ▼ ZER EGITERA ETA ZER EZ EGITERA KONPROMETITZEN DA ALDUNDIA?

**3.1.** Lehen sektoreak politika publikoan duen zeregina indartzeko eta gizarteratzeko konpromisoa hartzen da.

**3.2.** Proposatzen da Batzorde bat eratzea, "Ganbara" izenekoa, sektorean inplikaturako kideek osatua. Horren aurrean, esan behar da 2016. urteaz geroztik parte hartzeko batzorde bat dagoela, sektoreko 20-25 eragilek osatua, "Pagoetako Mahaia" deritzona, eta Aldundiko Partaidetza Zuzendaritzaren metodologiak eta dinamizazioak zuzentzen duena. Landa garapeneko elkarteak ere ordezkaturak daude. Horrela, gomen-dio honetan aipatzen den behetik gorako politika egiteko ereduak aplikatu nahi da. Esan behar da, "Pagoetako Mahaia"z gain, aholku batzorde ofizialak daudela (Ehiza Batzordea, Arrantza Batzordea, Biodibertsitate Batzordea, Landa Garapeneko Batzordea, etab.). Batzorde horiek urtean behin bildu ohi dira, eta nahiko mugatuak dira eraginkortasunean. Beraz, gomendio horri jarraiki, eta Gobernantza Berriaren dinamiketara bideratzeko helburuarekin, Aholku Kontseiluen eta Pagoetako Mahaiaren arteko topaketaren alde lan egi-teko konpromisoa hartzen dugu, eginkizun horren zailtasun juridikoak gaituz, sektorearen eta gizarte eragileen eta administrazioaren arteko lankidetzaren dinamika sustatuz eta eraginkorrago eginez.

**3.3.** Gomendio hauetan jasotako ekintzekiko konpromisoa baliabide teknikoak eta ekonomikoak areagotzeko modu bat da.

**3.4.** Nekazaritza jarduerarako lurzoru aberatsak babesteari dagokionez, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera, Gipuzkoan 1.600 Ha inguru daude Nekazaritza Balio Estrategiko Handiko lurzoru deklaraturak. Foru Aldundiko Nekazaritza eta Lurralde Oreken Zuzendaritza lur horien babesa defendatzen ari da, beste erabilerarik eman ez dakien, eta kontrako txostenak egiten ditu beste jarduerak batzuen aurrean. Aldundiak nekazaritza lurren defentsan lan egiten

jarraitzeko eta haien jarrera indartzeko konpromisoa hartzen du. Era berean, Etorlurren Lur Lur Bankua eta Aldundiaren Lurralde Funtza bultzatzeko konpromisoa hartzen du, eskualdeetako Landa Garapeneko Elkarteekin lankidetzaren estutuz eta aplikazio informatiko bateratua abian jarritz.

**3.5.** Lehen sektorea onura ekonomikotik haratago baloratzearen garrantzia indartzeko, beharrezkoa da lehen sektoreko eragileek eta lehen sektoreari lotutako zuzendaritzek Aldundian duten presentzia indartzea sektore eremutik haratagoko foro eta dinamiketan. Horregatik, lehen sektorea Etorlurra Eraikiz, Herritarren Batzorra eta antzeko dinamiketan sartzen ari da. Ahalegin horrekin jarraitu behar da. Lehen sektoreak politika publikoetan duen garrantzia areagotzeko, ezinbestekoa da komunikazioa eta presentzia zabaltzea. Eta ikusgarritasuna ematea ere garrantzitsua da. Ildo horretan, Gipuzkoan Oreka Berderako Erreferentzia Zentro bat bultzatzeko konpromisoa hartu da, nekazaritza eta ingurumena txanpon beraren bi aldeak izan daitezkeen lortzeko. Erreferentzia zentro horrek, Gipuzkoan, lehen sektorearen eta ingurumena arteko elkargune izan nahi du. Era berean, landa munduaren, herri txikien eta hiriguneetako biztanleen arteko topagune bihurtu nahi da. Ingurumen hezkuntza landa hezkuntzarekin eta baserriaren lanarekin konbinatuta, Gipuzkoako Parketxe Sarea bere lan pedagogikoa indartzeko espazio bihurtuko litzateke. Era berean, lehen sektorearen sustapenean Gipuzkoan sakabanatuta dauden erakunde eta eragile ugarirentzako topagune bihurtuko litzateke. Horrela, erreferentzia zentro horrek lehen sektorearen aldeko sinergiak sortuko lituzke, ingurumen erakundeekin zubiak sortuko lituzke ingurumenaren eta klima aldaketaren alde lan egiteko, eta erreferentzia puntu garrantzitsua izango litzateke Gipuzkoako gizartearentzat. Erreferentzia zentro honetako lehen sektoreko zerbitzu ekosistemikoak ezagutarazteko eta balioesteko balioko luke.

#### ▼ EPEA: NOIZ GARATZEA AURREIKUSTEN DA?

**3.1. / 3.3.** 2023-2027

**3.2. / 3.4.** 2024

**3.5.** 2026

#### ▼ AURREKONTUA. NOIZ ETA ZENBAT?

**3.1. / 3.2. / 3.3.** Ez du aurrekonturik behar.

**3.4.** 30.000 euro.

**3.5.** 2 M euro.

### 3. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2023ko azaroa

---

#### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---

3.1. Lurralde Oreka Berdea Departamentua sortu da.

3.2. 2023an Pagoetako Mahaia dinamikarekin jarraitu da. Hori ezinbestekoa da 2024an konbergentzia hori egin ahal izateko. Azterketa juridikoa egiteko eskaera Departamentuko Zerbitzu juridikoei egina dago.

3.3. Baliabide tekniko eta ekonomikoak areagotzeko aukera zabaldu du gomendio hauetan jasotako ekintzekiko konpromisoak.

3.4. Gilur ekimenari forma emateko (landa lur eskeintza eta eskaria uztartzen dituen aplikazio informatikoa) lan taldea sortu eta lanean hasi da (Etorlur, LGEak eta Departamentuko

teknikariak). Era berean, LGE, Kudeaketa zentroak, Etorlur, Hazi, Lanbide eta Departamentuko teknikariekin Trebatu izeneko programa garatzen ari da, nekazaritzan jardun nahi duten gazteak formazio praktikoa ustialeku eta lur funtseko eremuetan praktikak egin ditzaten.

3.5. “Erreferentziazko zentro eredu bat sortzeko, Gipuzkoako Oreka Berdearen eremuan, Etorluraren Eraikiz programaren baitan” bideragarritasun azterketa egiteko kontsultoria lana kontratatu da. Lan horrek, besteak beste, honako puntu hauek aztertuko ditu: zentroaren kokapena, funtzioak, zentroan elkartu daitezkeen erakunde ezberdinen azterketa, zentroaren misioa eta bisioa, elkarrekin sortu daitezkeen sinergiak eta bideragarritasun ekonomiko plana.

---

#### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

---

3.1. ● 2023ko konpromisoa bete da

3.2. ● Beteta, nahiz eta 2024an hasteko konpromisoa izan

3.3. ● 2023ko konpromisoa bete da

3.4. ● Beteta, nahiz eta 2024an hasteko konpromisoa izan

3.5. ● Beteta, nahiz eta 2024an hasteko konpromisoa izan

---

#### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

---

Lurralde Oreka Berdea eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

---

#### ▼ EPEA

---

3.1. 2023-2027

3.2. 2024

3.3. 2023-2027

3.4. 2024

3.5. 2026

### 3. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2024ko ekaina

#### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

**3.1.** Lurralde Oreka Berdea Departamentua sortu da eta gure egunerokoan horretan ari gara.

**3.2.** 2024an Pagoetako Mahaia dinamikarekin jarraitu da hori ezinbestekoa bai da 2024an konbergentzia hori egin ahal izateko. Departamentuko Zerbitzu juridikoak azterketa juridikoa egiten ari dira baina konplexua gertatzen ari da.

**3.3.** Baliabide tekniko eta ekonomikoak areagotzeko aukera zabaldu du gomendio hauetan jasotako ekintzekiko konpromisoak.

**3.4.** Gilur ekimenari forma emateko (landa lur eskeintza eta eskaria uztartzen dituen programa) lan taldea sortu eta lanean hasi da (Etorlur, Landa Garapen Elkartek eta Lurralde Oreka Berdea Departamentuko teknikariak). Era berean, Landa Garapen Elkartek, Gestio zentruak, Etorlur, Hazi, Lanbide eta Departamentuko teknikariekin “Trebatu” izeneko programa oso aurreratuta dago, nekazaritzan jardun nahi duten gazteak formazio praktikoa ustialeku eta lur funtseko eremuetan praktikak egin ditzaten. Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere Lur Funtzaren bidez, lur publikoen nekazaritzako erabilerarako

lurrak egokitu eta sustatzaileen eskura jartzeko ahaleginarekin jarraitzen du: Lezoko lurren erabilera baldintzak berrikusten ari gera, sustatzaile gehiago erakartzeko asmoz. Era berean, Urretxuko 4 Ha inguruko lur eremu bat, Deskargako autobiaien ondorioz sortutako lur laua, baratzagintzarako egokitzeko proiektua dizeinatzeke hastapenetan gaude.

**3.5.** “Erreferentziazko zentro eredu bat sortzeko, Gipuzkoako Oreka Berdearen eremuan, Etorluraren Eraikiz programaren baitan” bideragarritasun azterketa egiteko kontsultori lana kontratatu da. Lan honek besteak beste, honako puntu hauek aztertu ditu: zentruaren kokapena, funtzioak, zentruan elkartu daitezkeen erakunde ezberdinen azterketa, zentruaren misioa eta bisioa, elkarrekin sortu daitezkeen sinergiak eta bideragarritasun ekonomiko plana. Honekin batera, Zaldibian kokatzen den Goizane zentrua indartzeko helburuarekin eta kontsultora baten laguntzarekin Landa Garapen Elkartekin elkarlanean ari gara.

#### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

**3.1.** ● 2024ko konpromisoa bete da

**3.4.** ● 2024ko konpromisoa bete da

**3.2.** ● 2024ko konpromisoa bete da

**3.5.** ● 2024ko konpromisoa bete da

**3.3.** ● 2023ko konpromisoa bete da

#### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

Lurralde Oreka Berdea eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

#### ▼ EPEA

**3.1.** 2023-2027

**3.4.** 2024

**3.2.** 2024

**3.5.** 2026

**3.3.** 2023-2027



## 4. Gizartea haurtzarotik kontzientziatzea/sentsibilizatzea, nekazaritzaren eta klima aldaketaren munduari dagokionez.

### ▼ ALDUNDIAREN IKUSPEGIA GOMENDIO HONEKIKO

Aldundia guztiz ados dago gomendioan aipatzen denarekin: uste dugu garrantzitsua dela ondo kudeatutako nekazaritzaren eta basogintzaren beharra gizartean txertatzea, klima aldaketari aurre egiteko.

Beraz, helburu horretara bideratutako ahalegin guztiak ongi etorriak izango dira. Hala ere, helburu horren alde lan egin behar duten erakundeak desberdinak dira, bakoitza bere eskumenen esparruan: Udala, Aldundia eta Eusko Jaurlaritzza.

### ▼ ZER EGITERA ETA ZER EZ EGITERA KONPROMETTITZEN DA ALDUNDIA?

**4.2. / 4.3. / 4.5. / 4.6.** neurriak: Hezkuntza Plan espezifiko bat sortzeari dagokionez, argitu behar da hezkuntza eskumenak Eusko Jaurlaritzarenak direla, eta, beraz, atal hori aztertzea eta kasu horretan plan bat diseinatzea berari dagokiola. Aldundiak hitz ematen du gomendio hori Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari helaraziko diola, Hezkuntza Sailera bidera dezan.

**4.1. / 4.4. / 4.7. / 4.8. / 4.9. / 4.10.** neurriak: Hedabide eraginkorrak sortzea edo erabiltzea sustatzeko konpromisoa hartzen dugu:

- Foru banaketako Gure Lurra aldizkaria zabaltzea, sektoreko eragileez gain, Gipuzkoako gizarteko beste erakunde, eragile eta pertsona batzuei. Espazio eta pertsona berriak identifikatzea eta 2.000 puntu berri lortzea, 2.000 ale berrirekin.
- Gure Lurra jardunaldia osatzea urtero, Kursaal, astebeteko ekitaldiekin, landa eta klima aldaketaren aurkako borrokari buruz sentsibilizatzeko.
- Gipuzkoako Parketxe Sarearen bidez, ikastetxeentzako sentsibilizazio material bat sortuko da, eta Gipuzkoako ikastetxe guztiei baserriak bisitatzeko aukera emango zaie.
- ETXEKOAK izeneko Gabonetako kanpainari eustea eta hura finkatzea. ETXEKOAK kanpaina duela hiru urte jarri zuen abian Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta haren helburua da kontsumitzaileek bertako elikagaien berri izan dezaten sustatzea, batez ere Gabonetako jaien inguruan eta Eguberrietako tokiko produktuen kontsumoaren inguruan. Sentsibilizazio kanpaina telebistaren, irratiaren, egunkarien eta gainerako komunikabideen bidez egiten da, eta landa ekoizleak berak bihurtzen dira kanpainaren protagonista.
- EITBren SUSTRAIA programan dagoen konpromisoarekin jarraitzea. Aldi berean, programa hau edo programaren atalen bat haurrentzat eta gazteentzat erakargarriagoa izateko aukerak aztertzea.

### ▼ EPEA: NOIZ GARATZEA AURREIKUSTEN DA?

**4.2 / 4.3 / 4.5 / 4.6** neurriak: 2023.

Gure Lurraren astea 2024an ezarriko genuke.

**4.1 / 4.4 / 4.7 / 4.8 / 4.9 / 4.10** neurriak: Gure Lurra aldizkariaren kasuan, 2023an toki berriak identifikatuko dira eta 2.000 ale gehigarri 2024ko urtarrilean banatuko dira.

Gipuzkoako Parketxe Sarearen bidezko materiala 2023-2024 ikasturtean sortuko litzateke, eta aurreikusten da hurrengo 4 urteetan % 20 igotzea egun antolatzen diren baserrietarako bisitak.

### ▼ AURREKONTUA. NOIZ ETA ZENBAT?

**4.2 / 4.3 / 4.5 / 4.6** neurriak: ez dute aurrekonturik. Ez dakarte kostu ekonomikorik Aldundiarentzat.

Gure Lurraren astea antolatzea: egungo aurrekontua 100.000 eurotan handitzea.

**4.1 / 4.4 / 4.7 / 4.8 / 4.9 / 4.10** neurriak: Gure Lurra aldizkariaren 2.000 ale zabaltzea eta banatzea: 4.000 euro.

Material pedagogikoa eta baserrietako bisitak: 20.000 euro.

## 4. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2023ko azaroa

---

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---


4.2. / 4.3. / 4.5. eta 4.6. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari helarazi zaizkio Herritarren Batzarraren proposamenak.

4.1 / 4.4 / 4.7 / 4.8 / 4.9 / 4.10. Gure Lurra aldizkariko hurrengo alean 2.000 puntu gehiagotara iristeko ahalegina egingo da. Gure Lurra astea antolatzen ari da, azaroaren 23an ospatuko da eta Gipuzkoako Herritarren Batzarra ekimena aurkeztuko da bertan. SUSTRAIA programarekin jarraitzen da.

---

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA


---


4.1.  2023ko konpromisoa hasi da


4.6.  2023ko konpromisoa bete da


4.2.  2023ko konpromisoa bete da


4.7.  2023ko konpromisoa hasi da


4.3.  2023ko konpromisoa bete da

4.8.  2023ko konpromisoa hasi da

4.4.  2023ko konpromisoa hasi da

4.9.  2023ko konpromisoa hasi da

4.5.  2023ko konpromisoa bete da

4.10.  2023ko konpromisoa hasi da

---

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

---

Lurralde Oreka Berdea eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

---

### ▼ EPEA

---

4.2 / 4.3 / 4.5 / 4.6. 2023

4.1 / 4.4 / 4.7 / 4.8 / 4.9 / 4.10. 2023-2024

## 4. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2024ko ekaina

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

4.2. / 4.3. / 4.5. eta 4.6. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Hezkuntza Sailatarako idatzi informatiboak bideratu dira.

4.1 / 4.4 / 4.7 / 4.8 / 4.9 / 4.10. 2024ko otsailean banatu zen Gure Lurra aldizkariko 9. alean, 2010 ale gehiago banatu ziren, hoin artean Herritarren Batzarreko kideei bidali zitzairen.

Gure Lurra astea antolatzen ari gara eta azaroaren 23an ospatuko da.

SUSTRAlA programarekin jarraitzen degu.

Gipuzkoako Parketxe Sareak Gipuzkoako ikastetxeei eta Gipuzkoako norbanakoei zuzendutako material didaktiko berezia sortu du eta bixita eskeintza areagotu du.

”Gipuzkoako Parke Naturalak ezagutzen” ekimena martxan jarri degu. Lau larunbatetan, larunbat bakoitzean Parke Natural batera bisita antolatu da. Bisita horretan ekimen desberdinak planteatu dira: Basabizi basa fauna errekuiperatzeko zentruak sendatutako animali-hegazti bat naturara itzuli da, artzantzaren paper garrantzitsua ezagutarazi da, artalde baten bidez azalpenak eman eta bertan gazta eginez, nekazaritzarekin lotura duten kirolen berri eman da (palankariak), musikaldiak edo kontzertu laburrak antolatu dira....Edozein herritarrei irekitako irteerak izan dira.

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

- 4.1.  2024ko konpromisoa hasi da
- 4.2.  2024ko konpromisoa bete da
- 4.3.  2024ko konpromisoa bete da
- 4.4.  2024ko konpromisoa hasi da
- 4.5.  2024ko konpromisoa bete da

- 4.6.  2024ko konpromisoa bete da
- 4.7.  2024ko konpromisoa hasi da
- 4.8.  2024ko konpromisoa hasi da
- 4.9.  2024ko konpromisoa hasi da
- 4.10.  2024ko konpromisoa hasi da

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

Lurralde Oreka Berdea eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

### ▼ EPEA

4.2 / 4.3 / 4.5 / 4.6. 2023

4.1 / 4.4 / 4.7 / 4.8 / 4.9 / 4.10. 2023-2024





## 5. Lehen sektorea gaztetzeko neurriak aztertzea.

### ▼ ALDUNDIAREN IKUSPEGIA GOMENDIO HONEKIKO

Lehen sektorearen belaunaldi aldaketa da Aldundiaren kezka nagusienetako bat, eta horri aurre egiteko neurri espezifikoak daude. Hala ere, ahalegin guztiak beharrezkoak dira arazo konplexu horri aurre egiteko.

### ▼ ZER EGITERA ETA ZER EZ EGITERA KONPROMETTIZEN DA ALDUNDIA?

**5.1.** Baserritarra izaten laguntzea ekimen askoren ondorioa da. Ekimen horietako batzuk bederatzik gomendio hauetan jasota daude. Beraz, espero da Aldundiak eta gomendio hauetan jasotzen diren beste erakunde batzuek lehendik dauden neurriak abian jartzeak, baserritarra izatera iristea erraztuko duela.

**5.2.** Gazte berrien zailtasunetako bat lurrik eza da. Gipuzkoan, lurzoru eskasia eta eskuratzeko zailtasuna izugarria da, are gehiago lur emankorraz ari bagara. Lurzoruaren eskaintza errazteko tresnetako bat Lurzoruaren Foru Funtza da. Tresna horrekin batera, Etorlur enpresa publikoa lurra bilatzen eta nekazarien eskura jartzen ere saiitzen ari da. Ahalegin hori areagotzeko, aplikazio informatiko eraginkor bat diseinatze-konpromisoa hartu da, lurzoruaren eskaria eta lurzoruaren eskaintza uztartu ahal izateko. Gainera, aplikazio horren bidez lurzoria bilatzeko egungo lan sarea zabaltzeko konpromisoa hartzen da, Landa Garapeneko Elkartek integratuz.

**5.3.** Jardueraren errentagarritasunak baldintzatzen du gazteak sektorerera erakartzea. Baina, horrekin batera, ezinbestekoa da lan eta bizi baldintza erosoak izatea. Horregatik, ezinbestekoa da azpiegitura eta zerbitzu egokiak izatea landa eremuetan eta baserrietan. Alde horretatik, landa bideak, ur hornidura, garraio zerbitzua eta abar behar dira. Horrek guztiak zuntz optikoa ezinbesteko bihurtzen du. Aldundiak, azken urteotan, 2.500 biztanletik beherako herrietako etxebizitza eta baserri zuntz optikoa emateko dirulaguntzak eman ditu, eta udalerririk txiki horietan, ia gehienak osatu dira. Orain zuntz optikoa eraman behar da herri handietako baserrietara. Erantzukizun hori Espainiako Gobernuak hartu du bere gain. Aldundiak konpromisoa hartzen du Espainiako Gobernuarekin lankidetzak bultzatzeko hedapen eraginkorra izateko herri handienetan.

**5.4.** Gazteek elkarrekin lan egitea oso garrantzitsua da, errentagarritasunean ez ezik, lan eta bizi kalitatean ere. Lan partekatua kultura hori indartzeko eta bultzatzeko, Aldundiak GAZTENEK BERRI programa berrian ikuspegi hori indartzeko konpromisoa hartu du. Gazteek Berri programa berri bat da, hiru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak abian jarri dutena. MU Unibertsitateko Lein graduarekin jarri da abian, proiektu aitzindari batean, eta, hurrengo ikasturteari begira, Aldundiak lan komunaren ikuspegia adosteko eta barneratzeko konpromisoa hartu du.

Bai lurra erakartzeko lana egiteko, bai gazteak sektorean sartzen laguntzeko, TREBATU izeneko programa bat dute eremu bisualean. Aldundiak, Landa Garapeneko Elkartekin batera, programa hori aztertu eta ezartzeko konpromisoa hartu du.

**5.5.** Sektorea gizarteratzeko komunikazio ekintzei dagokienez, 4. gomendioan jasotako ekimenek ere balio dute gomendio honetarako.

**5.6.** Aldundiko Landa Inguruneke Zuzendaritzek eta Ogasun eta Finantza Departamentuak konpromisoa hartzen dute Gazteek eta Gazteek Berri programetan sartuta dauden gazteentzako zerga onuren ezarpena aztertzeke.

**5.7.** Hezkuntzarekin lotutako ekimenak, 4. gomendioan adierazitakoaren babesean, Eusko Jaurlaritzari dagozkio. Aldundiak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari helaraziko dizkio bertan jasotako ekimen proposamenak.

### ▼ EPEA: NOIZ GARATZEA AURREIKUSTEN DA?

**5.1.** 2023-2027

**5.2.** 2023 (3.4 azpigomendioan aurreikusia)

**5.3 / 5.7.** 2023

**5.4.** 2023-2024

**5.5.** (4.gomendioan jasotzen diren ekimenak eta egutegia).

**5.6.** Azterketa-datak 6-7 hilabete

### ▼ AURREKONTUA. NOIZ ETA ZENBAT?

**5.1.** Ekimen askoren batura. (Ez da aurrekonturik jasotzen)

**5.2.** 30.000 euro (3.4 azpigomendioan aurreikusia).

**5.3.** Oraingoz ezin da zehaztu.

**5.4.** GAZTENEK BERRI: Aurrekontu arruntaren kontura.

**5.5.** (4.gomendioan jasotzen diren ekimenak eta egutegia)

**5.6. / 5.7.** Ez dakar aurrekonturik.

## 5. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2023ko azaroa

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

5.1. Baserritara izaten laguntzea ekimen askoren batura da. Konpromiso hau 3.1 konpromisoarekin loturan garatzen ari da.

5.2. Gazte berriek lurak eskuratzeko helbururi erantzuteko, konpromiso hau 3.4 konpromisoarekin loturan garatzen ari da.

5.3. Herri txikietako (<2.500 biztanle) landa eremuan zuntzaren hedapena egin da eta herri haundienetan Espainiako Gobernuarekin hitzarmena sinatzeko ahaleginetan ari da, baina eskumena ministerioren da eta bere baitan dago lankidetzan aritu edo ez.

5.4. 2023an Gaztenek Berri-ren esperientzia pilotu bat egin da Mondragon Unibertsitatearekin batera. Orain, lau erakundeoi (hiru Aldundiak eta Jaurlaritza) balorazioa egin eta hurrengo urratsak definitzea dagokigu. (Trebatu azalpenak eman dira 3.4en)

5.5. Sektoreka gizarteratzeko komunikazioa 4. konpromisoarekin loturan bideratzen hasi da.

5.7. Hezkuntzari lotutako gomendioak 4. konpromisoarekin loturan gauzatzen ari dira.

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

5.1. ● 2023ko konpromisoa beteta da (3.1ekin lotura)

5.2. ● 2023ko konpromisoa bete da

5.3. ● 2023ko konpromisoa bete da

5.4. ● 2023ko konpromisoa bete da

5.5. ● 2023ko konpromisoa hasi da (4.1 / 4.4. / 4.7. / 4.8. / 4.9. / 4.10.ekin loturan)

5.6. ● 2023an konpromisoa ez da bete

5.7. ● 2023ko konpromisoa bete da

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

Lurralde Oreka Berdea, Ogasuna eta Finantzak, eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

### ▼ EPEA

5.1. 2023-2027

5.2. 2023 (3.4 azpigomendioan aurreikusia)

5.3. 2023

5.4. 2023-2024

5.5. 4.gomendioan jasotzen diren ekimenak eta egutegia

5.6. Azterketa-datak 6-7 hilabete

5.7. 2023

## 5. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2024ko ekaina

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

5.1. Baserritara izaten laguntzea ekimen askoren batura da. Konpromiso hau 3.1 konpromisoarekin loturan garatzean ari da.

5.2. Gazte berriek lurra eskuratzeko helbururi erantzuteko, konpromiso hau 3.4 konpromisoarekin loturan garatzen ari da.

5.3. Herri txikietako (<2.500 biztanle) landa eremuan zuntzaren hedapena egin da eta herri haundienetan Espainiako Gobernuarekin hitzarmena sinatzeko ahaleginetan gabiltza baina eskumena ministeriorena da. Oso gai korapilatsua eta zaila gertatzen ari da. Zuntz Optikoaren hedapena esleitu zaien operadore batekin ere hitz egiten ari gera arazoa gaingitu edo hobetu asmoz. Landa eremuko ur hornidura sarea hobetzeko gestioak ere egiten hasi gera Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin. UR hornidura sarea hobetzeko plana bi-hiru legealditako ekimena izan beharko du, inbertsio haundiak suposatzen dituelako. Era berean, Mugikortasun Autonomia landa eremuan esperimentatzeko ekimen bat diseinatzen hasi gera.

5.4. 2023an Gaztenek Berri-ren esperientzia pilotu bat egin da Mondragon Unibertsitatearekin batera. Lau erakundeok (hiru Foru Aldundi eta Jaurlaritza) balorazioa egin degu eta hurrengo urratsak definitu dira. GAZTENEKEN eta beraz, GAZTENEK BERRIren gaian Eusko JAurlaritzak ere pisu handia duenez, Gobernu osaketa berriarekin gaiari berriro heldu beharko zaio.

Trebatu ekimena 3.4 azpigomendioan azaldu da.

5.5. 4. gomendioan jasotako ekimenak

5.7. 4. gomendioan jasotako ekimenak

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

5.1. ● 2024ko konpromisoa bete da

5.2. ● 2024ko konpromisoa bete da

5.3. ● 2024ko konpromisoa bete da

5.4. ● 2024ko konpromisoa bete da

5.5. ● 2024ko konpromisoa hasi da (4.1 / 4.4. / 4.7. / 4.8. / 4.9. / 4.10.ekin loturan)

5.6. ● 2024an konpromisoa ez da bete

5.7. ● 2024ko konpromisoa bete da

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

Lurralde Oreka Berdea, Ogasuna eta Finantzak, eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

### ▼ EPEA

5.1. 2023-2027

5.2. 2023 (3.4 azpigomendioan aurreikusia)

5.3. 2023

5.4. 2023-2024

5.5. 4.gomendioan jasotzen diren ekimenak eta egutegia

5.6. Azterketa-datak 6-7 hilabete

5.7. 2023



## 6. KM.0 sustatzea 1. ekoizpen-fasetik.

---

### ▼ ALDUNDIAREN IKUSPEGIA GOMENDIO HONEKIKO

---

Aldundia bat dator KM.0 produktuak sustatzeko planteamenduarekin. Aldundiak berak bultzatutako elikadura jasangarriaren inguruko MISIOAK ezartzen du Gipuzkoak 2040an elikadura sistema jasangarri, osasungarri, irisgarri eta lehiakorra izango duela, tokiko ekoizpen gaitasuna maximizatuko duena eta kontsumo arduratsua sustatuko duena, lurraldearen kultura eta nortasuna proiektatuz. KM.0 produktuen sustapena erabat lerrokatuta dago MISIO honekin.

Beste gomendio batzuetan bezala, komeni da jakitea zer eskumen banaketa dagoen erakundeen artean: Aldundiaren eskumen nagusia ekoizpena da, eta eraldatzearen eta merkaturatzearen erantzukizun nagusia Eusko Jaurlaritzari dagokio.

---

### ▼ ZER EGITERA ETA ZER EZ EGITERA KONPROMETITZEN DA ALDUNDIA?

---

Aldundiak, MISIOAn adierazten den bezala, tokiko ekoizpen ahalmena maximizatzeko neurriak areagotzeko konpromisoa hartzen du. Neurri horiek oso zabalak eta askotarikoak dira, eta beste gomendio batzuetan jasotako neurri asko hori lortzera bideratuta daude: gazteak sektorean sartzea, nekazaritza lurra eskuratzea, baserriarren bizi eta lan baldintzak hobetzeko azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzea, etab.

Baina ekoiztutako produktuak KM.0 bihurtzeko, bertan kontsumitu behar dira. Horretarako, kate laburrak sustatu behar dira, tokiko kontsumitzaileei eskaini, zuzeneko salmenta areagotu, etab. Eta eginkizun horiek Eusko Jaurlaritzaren eskumen eskusiboa dira.

Hala ere, Aldundiak bost konpromiso hartu ditu:

1. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari gomendio honetan jasotakoa helaraztea, lan egiten duen Elikadura Katearen Legearen esparruan, Gipuzkoako gizartearen kezka eta eskaera hori kontuan har dezan.
2. Aldundia Gipuzkoako udalekin egiten ari den Gipuzkoako Azoken Sarea hobetzeko eta indartzeko dinamikak areagotzea.
3. Tokiko elikagaiak eskaintzea cateringean eta Aldundiak antolatutako beste ekitaldi batzuetan.
4. KM.0 produktuak sustatzeko neurriak ezartzea aterpetxeetan, adinekoen egoitzetan eta foru titulartasuneko gainerako jantoki kolektiboetan, naturaltasunaren aldeko diskriminazio positiboa eginez deialdietan. Jantoki publikoetako elikaduraz gain, eraikin publikoetan egurraren erabilera sustatuko da.
5. KM.0 produktuak sustatzeko egungo komunikazio kanpainak indartzea eta areagotzea: sagardo denboraldiko kanpaina, Gabonetako ETXEKOAK kanpaina, etab.

---

### ▼ EPEA: NOIZ GARATZEA AURREIKUSTEN DA?

---

Proposamena Eusko Jaurlaritzari: hurrengo sei hilabeteetan

KM.0 sustatzea Aldundiaren jantoki kolektiboetan: hemendik aurrera, lizitazio berriei begira.

Gipuzkoako azoka sarea: hasi da, eta datozen bi urteetan egituratuko dela aurreikusi da.

KM.0 produktuen komunikazioa sustatzea, hemendik aurrera

KM.0 produktuak sustatzea Aldundiaren ekitaldietan: hemendik aurrera.

---

### ▼ AURREKONTUA. NOIZ ETA ZENBAT?

---

Gipuzkoako azoka sarea. Ikerketa, antolaketa 30.000 euro.

KM.0 produktuen komunikazioa sustatzea: 100.000 euro/urtero.

KM.0 produktuen sustapena Oraingoz ezin da aurrekonturik.

**2.3.** Departamentuko ohiko aurrekontuetatik.

KM.0 sustatzea. Oraingoz ezin da aurrekontua zehaztu.

**2.4.** BSTK fundazioaren aurrekontuaren bidez aurre egingo zaio.

## 6. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2023ko azaroa

---

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---

**6.1.** Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari Batzarraren gomendio honetan jasotakoa helarazi zaio.

**6.3.** GAZTENEK ekitaldian, Sagargo egunean eta Gure Lurra Kongresuan bertako elikagaiak eskaintzeko esfortzua egin da eta Aldundiko beste Departamentuei gomendio hau gogorazi zaie.


**6.4.** Etorkizuna Eraikiz 2023ko misioen artean, “Elikadura Jasangarria Misioa” onartu da eta ekimenaren horren baitan jantoki kolektiboen inguruan proiektu bat adostu da Gizarte Politiketako Departamentuarekin.

**6.5.** KMO produktuak sustatzeko egungo komunikazio kanpainak indartzen ari dira.

---

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA


---

**6.1.**  2023ko konpromisoa hasi da

**6.4.**  2023ko konpromisoa hasi da

**6.2.**  2023an konpromisoa ez da bete

**6.5.**  2023ko konpromisoa hasi da

**6.3.**  2023ko konpromisoa bete da

---

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

---

Lurralde Oreka Berdea, Zainketak eta Gizarte Politikak, Gobernantza eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

---

### ▼ EPEA

---

**6.1.** Hasia dago. Datozen bi urteetan egituratzea aurreikusten da

**6.4.** Hemendik aurrera eta esleipen berrietara begira

**6.3.** 2023 - aurrera

**6.5.** 2023 - aurrera

## 6. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2024ko ekaina

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

**6.1.** Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari gomendio honetan jasotakoa helarazi zaio, lan egiten duen Elikadura Katearen Legea eta Tokiko produktuen salmenta zuzena egiteko Dekretoa (europatik mugak), Gipuzkoako gizartearen kezka eta eskaera hori kontuan har dezan.

**6.2.** Aldundia Gipuzkoako udalekin egiten ari den Gipuzkoako Azoken Sarea hobetzeko eta indartzeko dinamikak areagotzea.

**6.3.** GAZTENEK ekitaldian, Sagardo egunean eta Gure Lurra Kongresuan bertako elikagaiak eskeintzeko esfortzua egin zen eta Aldundiko beste Departamentuei gomendio hau gogorazi zaie.

**6.4.** Etorkizuna Eraikiz markoan “Elikadura Jasangarriaren Misioa” onartu zuen Aldundiak eta ekimen horren baitan Lurralde Oreka Berdea Departamentua Gizarte Politiketatko Departamentuarekin elkarlanean zaharren HIRUGARREN ADINEKO egoitzetako jantokietan bertako produktuak txertatzeko proiektua lantzen ari da.

**6.5.** KMO produktuak sustatzeko egungo komunikazio-kanpainak indartzen ari dira.

Legealdi berri honetan, Aldundiak presentzia areagotu du Gipuzkoan zehar bertako produktuak sustatzeko antolatzen diren ekimen desberdinetan: sagardoaren inguruko ekimenak, azoka bereziak, Tolosako ESNEKIAK ekimena, eta abar.

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

**6.1.** ● 2024ko konpromisoa bete da

**6.2.** ● 2024an konpromisoa ez da bete

**6.3.** ● 2024ko konpromisoa bete da

**6.4.** ● 2024ko konpromisoa hasi da

**6.5.** ● 2024ko konpromisoa hasi da

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

Lurralde Oreka Berdea, Zainketak eta Gizarte Politikak, Gobernantza eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

### ▼ EPEA

**6.1.** Hasia dago. Datozen bi urteetan egituratzea aurreikusten da

**6.3.** 2023 - aurrera

**6.4.** Hemendik aurrera eta esleipen berrietara begira

**6.5.** 2023 - aurrera



# 6

GOMENDIOA

**KM.0** sustatzea 1. ekoizpen-fasetik.

-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----  
-----

## 7. Nekazaritza ekologiko estrategikoa sustatzea, lehiakortasuna, produktibitatea eta merkaturatzea handitzeko erakunde bat sortuz/zabalduz.

### ▼ ALDUNDIAREN IKUSPEGIA GOMENDIO HONEKIKO

Nekazaritza ekologikoaren sustapena Aldundiaren helburuetan dago, ez bakarrik Europako Nekazaritza Politika Bateratuaren mandatueta bat delako, baita egungo gizartean haratago doan eskaria delako ere.

Gomendio horretan kontuan hartu behar da, lehenago ere esan den bezala, administrazioen arteko eskumen banaketa. Kontuan izan behar da, orokorrean eta zehaztasun gutxiarekin esan arren, ekoizpenerako eskumenak Foru Aldundiei dagozkiela, eta produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko eskumenak (besteak beste, kalitate ziurtagirien erantzukizuna), berriz, Eusko Jaurlaritzari.

### ▼ ZER EGITERA ETA ZER EZ EGITERA KONPROMETITZEN DA ALDUNDIA?

**7.1.** Gomendio honetan planteatzen den ekimenetako bat da erakunde edo entitate bat sortzea kudeaketarako, ekoizpenerako, merkaturatzerako, komunikaziorako, publizitaterako eta abarrerako. Ildo horretan, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilu bat dago, EKOLURRA izenekoa. Kontseilu horren eginkizun nagusiak dira ekoizpen ekologikoko sistemen ezagutza eta aplikazioa zabaltzea, Euskadiko produktu ekologikoen kontsumoa eta hedapena azpimarratuz, eta nekazaritza eta elikagaigintza ekoizpen ekologikoa kontrolatzea eta ziurtatzea, Europar Batasuneko araudian ezarritako ekoizpen, elaborazio, inportazio eta merkaturatze arauak betez. Ekolurraren funtzio zehatzak aztertzen badira, honako hauek azaltzen dira, besteak beste: nekazaritzako elikagai ekologikoak kontrolatzea eta egiaztatzea, ekoizpen ekologikoko sistemen eta ekoizpen ekologikoaren bidez lortutako produktuen ezagutza eta aplikazioa jakinaraztea, eta nekazaritzako eta elikagaigintzako produktu ekologikoen kontsumoa eta hedapena sustatzea. Beraz, enkargu honetan sortzea proposatzen den erakundeari esleitzen zaizkion funtzioetako asko Ekolurraren funtzioak dira jada.

Eta Aldundiaren ekoizpen eskumenaren ikuspegitik, ekoizpen ekologikoa sustatzeko, Gipuzkoaren kasuan BIOLUR izeneko elkarte bat dago, eta Aldundiak urtero dirulaguntza bat ematen dio sustapen lan horretarako.

Horretaz guztiaz gain, Aldundiak urtero argitaratzen du produktu ekologikoa ekoizten duten baserriarrentzako laguntzen deialdia, eta kopuru hori nabarmen handitu da azken urteotan.

### ▼ EPEA: NOIZ GARATZEA AURREIKUSTEN DA?

Hemen aipatutako neurriak gauzatzen ari dira eta jarraipen konpromisoa dago.

**7.2.** Puntu honetan, Ekolurra neurri handi batean Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin gauzatzen ari den ekintza zehatzak jasotzen dira. Nolanahi ere, eta aipatzen diren ekintza zehatzei dagokienez, honako argibide hauek ematen dira:

- Aplikazioa. Dagoeneko hainbat aplikazio daude bertako elikagaiak eta elikagai ekologikoak herritarrengana hurbiltzeko. Ez da aurreikusten elikagai soberakinak kudeatzeko aplikaziorik behar denik, ez ikuspuntu operatibotik, ez araudiaren ikuspegitik.
- Ekonomia zirkularra eta soberakinak. Aurreko puntuan erantzun da.
- Ekintzaileen edo pertsonen tutoretza. Zerbitzu hori GAZTENEK programak, kudeaketa zentroen zerbitzuak eta sektoreko elkarteek (Biolur) estaltzen dute.
- Kudeaketarako laguntza. Kostuak murrizteko inbertsiorako laguntzen deialdi bat dago. Era berean, ekoizpen ekologikoa zuzeneko laguntzak ditu produktibitate txikiagoa konpentsatzeko.

### ▼ AURREKONTUA. NOIZ ETA ZENBAT?

Gaur egun BIOLURera bideratzen den urteko dirulaguntza 100.000 euro ingurukoa da.

Gainera, ekoizpen ekologikoan lan egiten duten nekazariei esleitutako laguntza deialdiaren zenbatekoa 450.000 euro ingurukoa da.

## 7. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2023ko azaroa

---

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---

7.1. Nekazaritza ekologikoaren sustapenari dagokionean, EKOLURRA Kontseilua eta BIOLUR elkarte babesten jarraitzen da.

7.2. EKOLURRA ekimenaren baitan jasotako ekintzak gauzatzen ari dira.

---

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

---

7.1. ● 2023ko konpromisoa bete da

7.2. ● 2023ko konpromisoa bete da

---

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUA

---

Lurralde Oreka Berdea.

---

### ▼ EPEA

---

Aipatutako neurriak gauzatzen ari dira eta jarraipen konpromisoa dago.

## 7. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2024ko ekaina

---

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---

7.1. Nekazaritza ekologikoaren sustapenari agokionean, EKOLURRA Kontseilua eta BIOLUR elkarte babesten jarraitzen da.

7.2. EKOLURRA ekimenaren baitan jasotako ekintzak gauzatzen ari dira

---

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

---

7.1. ● 2024ko konpromisoa bete da

7.2. ● 2024ko konpromisoa bete da

---

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUA

---

Lurralde Oreka Berdea.

---

### ▼ EPEA

---

Aipatutako neurriak gauzatzen ari dira eta jarraipen konpromisoa dago.



## 8. Tokiko produktua sustatzea, hobari fiskalak egokituz.

---

### ▼ ALDUNDIAREN IKUSPEGIA GOMENDIO HONEKIKO

---

Aldundia ados dago tokiko produktuak ere sustatzearekin eta hori lortzeko hainbat neurri ezartzearekin. Tokiko produktuak sustatzeko, honako neurri hauek har daitezke: merkatuak eta azokak sentsibilizatzeko, egokitzeko eta bultzatzeko neurriak, tokiko produktuak identifikatzeko, bereizteko eta ziurtatzeko ekimenak, publizitatea, neurri fiskalak eta abar. Neurri horiek abian jartzeko eskumenak administrazioen artean banatzen dira: udalak, Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Eta administrazioetik haratago, eragileen eta beste erakunde

batzuen lana ere bada (kontsumitzaileen erakundeak, lehen sektoreko eragileak, tokiko produktuen sustapenean).

Tokiko produktuak sustatzeko neurrietako bat hobari fiskalak egokitzea da. Eta ideia erabilgarria bada ere, haren aplikazioak eta eraginkortasunak ere zailtasun teknikoak dituzte. Horregatik, egokitzeaz jotzen da tokiko produktuak sustatzeko modurik eraginkorrena aztertzea: hobari fiskalak, beste laguntza batzuk.

---

### ▼ ZER EGITERA ETA ZER EZ EGITERA KONPROMETITZEN DA ALDUNDIA?

---

Aldundiko Landa Ingurunearen Zuzendaritzak eta Ogasun eta Finantzetako departamentuak konpromisoa hartu dute tokiko produktuak sustatzeko hainbat aukera aztertzeko (hobari fiskalak, laguntza ekonomiko gehigarriak, kontsumitzaileentzako bonuak). Sustapen neurriak ezartzeko eremua oso zabala izan daitekeenez, horrek izugarri zailduko

luke haien definizioa. Beraz, lehenengo urratsean, sustapen-neurriak ZIURTATUTAkoa den tokiko ekoizpenetan mugatzea planteatzen da, hau da, Eusko Labelaren, Ekologiaren, Integrazioaren, AGBren edo antzekoren baten ziurtapenarekin produzitzeko konpromisoa hartu duten baserrietara.

---

### ▼ EPEA: NOIZ GARATZEA AURREIKUSTEN DA?

---

Gaia konplexua denez eta Eusko Jaurlaritzaren eta beste erakunde batzuen arteko lankidetzaren beharrezkoa denez, 2024an eta 2025ean egitea proposatzen da azterketa eta kuantifikazio prozesu hori.

Nolanahi ere, neurri horiek EAEn abiarazi den Erreforma Fiskalaren esparruan aztertu beharko lirateke, neurri horietako batzuek fiskalitatearekin zerikusia badute ere.

---

### ▼ AURREKONTUA. NOIZ ETA ZENBAT?

---

Azterketa eta kuantifikazio lanaren zatirik garrantzitsuenak barne-baliabideekin egingo litzateke. Kanpoko zerbitzu enpresen lana (aholkularitza fiskalak, abokatuak) 100.000 euro ingurukoa da, 2024an eta 2025ean banatuta.

Hobari fiskalen planteamendua bideragarria izango balitz, ezarpenaren kostua (Aldundiak hobari fiskal bat ezarriko lukeena, hau da, Errentaren eta Sozietatearen aitortuenean ordaintzeari utziko liokeena) oso zaila izango litzateke aurreikustea, eta azterketa horren ondorio izango litzateke.

## 8. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2023ko azaroa

---

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---

**8.1. /8.2. / 8.3.** Tokiko produktuekiko hobari fiskalak egokitzeko konpromiso 2024 urtean hastekoa da. Ez da 2023an ekintzarik burutu.

---

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

---

- 8.1.  2023 urterako ez zen konpromisorik hartu eta beraz, 2023an ez da hasi
- 8.2.  2023 urterako ez zen konpromisorik hartu eta beraz, 2023an ez da hasi
- 8.3.  2023 urterako ez zen konpromisorik hartu eta beraz, 2023an ez da hasi

---

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

---

Lurralde Oreka Berdea eta Ogasuna eta Finantzak.

---

### ▼ EPEA

---

8.1. 2024-2025

8.2. 2024-2025

8.3. 2024-2025

## 8. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2024ko ekaina

---

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---

**8.1. /8.2. / 8.3.** Tokiko produktuak sustatzeko helburuarekin hobari fiskalak ezartzeko lanekin hasiak gara Zerbitzu ekosistemikoen kontestuan (1 gomendia).

---

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

---

**8.1.** ● 2024ko konpromisoa hasi da

**8.2.** ● 2024ko konpromisoa hasi da

**8.3.** ● 2024ko konpromisoa hasi da

---

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

---

Lurralde Oreka Berdea eta Ogasuna eta Finantzak.

---

### ▼ EPEA

---

**8.1.** 2024-2025

**8.2.** 2024-2025

**8.3.** 2024-2025





## 9. Baserri misto profesionala sustatzea.

---

### ▼ ALDUNDIAREN IKUSPEGIA GOMENDIO HONEKIKO

---

Gipuzkoan, industrian edo beste edozein sektoretan lan egiten duen jende asko dago, eta bere lana baserriko lanarekin bateratzen du. Baina horrek ahalegin handia eskatzen du, eta belaunaldi berriek ez dute gurasoen lan erritmo bera nahi. Beraz, baserriaren jarduerari eutsi nahi bazaio, seme-alabek jaraunspena jasotzen duten unean, ezinbestekoa da beste leku bateko lana eta baserriko lana bateragarri egiteko aukera

ematea, eta, horretarako, lanaldi-murrizketa edo malgutasuna eskaintzea.

Beraz, Aldundia ados dago planteamendu horrekin, eta uste du ezinbesteko neurria izango dela Gipuzkoan etorkizunean landa jarduera izaten jarraitzeko.

---

### ▼ ZER EGITERA ETA ZER EZ EGITERA KONPROMETITZEN DA ALDUNDIA?

---

Planteamendu hori berritzailea denez, 5 urteko esperimentazioa proposatzen da. Urtero dirulaguntzen deialdi bat egitea bost urtean, proiektu pilotu baten bidez. Laguntzen deialdia enpresari eta baserriar mistoa izateko prest dagoen langileari zuzenduta egongo litzateke.

Esperimentazio-fase hau diseinatzekoan, halaber, aztertuko da ea baserriar misto profesional izan daitezkeen pertsona horien profilean sartuko liratekeen prestakuntza zentroetan ikasten ari diren pertsonak.

Helburua urtean 30 langile ingurura iristea da, hau da, 5 urtean 150 baserriar misto profesionaletara iristea.

Aldundiak programa hori abian jartzeko eta finantzatzeko konpromisoa hartu du.

---

### ▼ EPEA: NOIZ GARATZEA AURREIKUSTEN DA?

---

Programaren diseinua 2023an egingo litzateke. Etorkizuna Eraikizen esparruan egitea aurreikusten da, eta erakundeekin lankidetzan egin nahi da, ko-sorkuntzan parte hartzeko metodologiaren bidez, Orkestra, Deustuko Unibertsitatea, MCC, Gipuzkoako enpresa ordezkariak, baserriarren ordezkariak eta Aldundiko Estrategia eta Sustapen Ekonomikoko arloak arituko dira sorkuntza horretan. Lehenengo deialdia 2024an

egingo litzateke, eta proiektu pilotua 2028ra arte luzatuko litzateke. 2027-2028an, betiere proiektu pilotuak arrakasta badu, Europako Nekazaritza Politika Bateratuaren esparruan egiten diren plan estrategikoen esparruan eta finantzaketan txertatuko litzateke.

---

### ▼ AURREKONTUA. NOIZ ETA ZENBAT?

---

2024-2028. 1,8 miloi euro urteroko deialdian.

## 9. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2023ko azaroa

---

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---

9.1. Lan talde bat osatu da BMP (Baserritar Misto Profesionala) definitzeko eta Sinnple kontsultora hartu da erraztaile lanetarako. Lantzen ari diren dokumentuak hauek dira:

- Enpresei zuzendutako dirulaguntza deialdia.
- Baserritarrei zuzendutako dirulaguntza deialdia.
- Baserritarrei zuzendutako inbertsioetarako laguntza deialdia.
- Enpresa eta baserritarren arteko kontratu eredua.

---

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

---

9.1.  2023ko konpromisoa bete da

---

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

---

Lurralde Oreka Berdea eta Ogasuna eta Finantzak eta Ekonomia sustapena eta berrikuntza.

---

### ▼ EPEA

---

Programaren diseinua 2023an

Inplementazioa 2024-2025-2026-2027-2028

## 9. Gomendioaren konpromiso-egoera. 2024ko ekaina

---

### ▼ KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

---

9.1. Sinple kontsultora erreztaille lanetan hartuta, Lurralde Oreka Berdea eta Sustapen Ekonomikoko Departamentuek BMP (Baserritar Misto Profesionala) programaren oinarriak definitu dute, Gipuzkoako enpresa talde bat eta baserritar talde batekin elkarlanean. Landu diren dokumentuak hauek dira:

- Enpresei zuzendutako dirulaguntza deialdiaren oinarriak eta deialdia.
- Baserritarrei zuzendutako dirulaguntza deialdiaren oinarriak eta deialdia.
- Enpresa eta baserritarren artean sinatzeko aurrekontratu eta kontratu ereduak.

Ekainean zehar publiko egingo du programa Eider Mendoza Diputatu Nagusiak.

Deialdia 2024ko uztailan argitaratuko da.

Aurrekontu prorrogatuak tarteko, partida berezirik ez dago ekimen hau garatzeko baina Batzar Nagusietako gainontzeko Alderdi Politikoeekin hasi nahi den aurrekontuen negoziaketa prozesuan, BMP proiekturako bideratu nahi diren partidak ere sartuko dira.

---

### ▼ BETETZE-MAILAREN EGOERA

---

9.1.  2024ko konpromisoa bete da

---

### ▼ INPLIKATUTAKO DEPARTAMENTUAK

---

Lurralde Oreka Berdea eta Ogasuna eta Finantzak eta Ekonomia sustapena eta berrikuntza.

---

### ▼ EPEA

---

Programaren diseinua 2023an

Inplementazioa 2024-2025-2026-2027-2028





